

Kontsumoari buruzko Legeak
Leyes sobre Consumo

KONTSUMOARI BURUZKO LEGEAK

LEYES SOBRE CONSUMO

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

KONTSUMOARI BURUZKO LEGEAK

LEYES SOBRE CONSUMO

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ
UPV/EHuko Zuzenbide Zibileko irakaslea
Argitalpenaren koordinatzailea

IRENE ALDASORO KATARAIN
PATXI PETRIRENA ALTZUGUREN
Itzultzaileak

ANTTON ELOSEGI ALDASORO
UPV/EHuko Euskara Juridikoko irakaslea
Zuzenbideko Euskararen Mintegiko arduraduna

JUAN GARZIA GARMENDIA
UPV/EHuko Euskara Zerbitzua

JOSÉ ANGEL TAMAYO ERRAZQUIN
UPV/EHuko Zuzenbide Erromatarreko Irakaslea
Argitalpenaren koordinatzailea

- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea/Impresión: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-9860-036-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 3.625-07

AURKIBIDEA

ÍNDICE

Prólogo. Joseba Azkarraga Rodero	14
Presentación. Itziar Alkorta Idiakez	21
LEY 26/1984, DE 19 DE JULIO, GENERAL PARA LA DEFENSA DE LOS CONSUMIDORES Y USUARIOS	25
Preámbulo	26
Capítulo I. Ámbito de aplicación y derechos de los consumidores	28
Capítulo II. Protección de la salud y seguridad	30
Capítulo III. Protección de los intereses económicos y sociales	38
Capítulo IV. Derecho a la información	50
Capítulo V. Derecho a la educación y formación en materia de consumo ..	58
Capítulo VI. Derecho de representación, consulta y participación	60
Capítulo VII. Situaciones de inferioridad, subordinación o indefensión ...	74
Capítulo VIII. Garantías y responsabilidades	78
Capítulo IX. Infracciones y sanciones	82
Capítulo X. Competencias	90
Disposiciones adicionales	96
Primera. Cláusulas abusivas	96
I. Vinculación del contrato a la voluntad del profesional ..	96
II. Privación de derechos básicos del consumidor	100
III. Falta de reciprocidad	100
IV. Sobre garantías	102
V. Otras	102
Segunda. Ámbito de aplicación	106
Tercera. Acciones de cesación	106

Hitzaurrea. Joseba Azkarraga Rodero	15
Aurkezpena. Itziar Alkorta Idiakez	21
26/1984 LEGEA, 1984KO UZTAILAREN 19KOA, KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN DEFENTSARAKO OROKORRA	25
Aitzinsolasa	27
I. kapitulua. Aplikazio-eremua eta kontsumitzaileen eskubideak	29
II. kapitulua. Osasunaren eta segurtasunaren babesa	31
III. kapitulua. Interes ekonomiko eta sozialen babesa	39
IV. kapitulua. Informazio-eskubidea	51
V. kapitulua. Kontsumo-arloko hezkuntza eta prestakuntzarako eskubidea	59
VI. kapitulua. Ordezkaritza-, kontsulta- eta partaidetza-eskubidea	61
VII. kapitulua. Gutxiagotasuna, mendekotasuna edo defentsa-gabezia gerta- tzen den egoerak	75
VIII. kapitulua. Bermeak eta erantzukizunak	79
IX. kapitulua. Arau-haustek eta zehapenak	83
X. kapitulua. Eskumenak	91
Xedapen gehigarriak	97
Lehenengoa. Abusuzko klausulak	97
I. Kontratua profesionalaren borondateari lotzea	97
II. Kontsumitzaileari oinarritzko eskubideak kentzea	101
III. Elkarrekikotasunik eza	101
IV. Bermeei buruzkoak	103
V. Beste batzuk	103
Bigarrena. Aplikazio-eremua	107
Hirugarrena. Bukarazte-akzioak	107

Disposiciones finales	108
Primera	108
Segunda	108
Tercera	108
Cuarta	108
Disposición derogatoria	108
 LEY 22/1994, DE 6 DE JULIO, DE RESPONSABILIDAD CIVIL POR DAÑOS CAUSADOS POR PRODUCTOS DEFECTUOSOS	 111
Exposición de motivos	112
Artículos 1-15	114
Disposición adicional	120
Disposición transitoria	122
Disposiciones finales	122
Primera	122
Segunda	122
Tercera	122
Cuarta	122
 LEY 7/1998, DE 13 ABRIL, DE CONDICIONES GENERALES DE LA CONTRATACIÓN	 125
Exposición de motivos	126
Capítulo I. Disposiciones generales	140
Capítulo II. No incorporación y nulidad de determinadas condiciones ge- nerales	146
Capítulo III. Del Registro de Condiciones Generales de la Contratación ..	148
Capítulo IV. Acciones colectivas de cesación, retractación y declarativa de condiciones generales	150
Capítulo V. Publicidad de las sentencias	158
Capítulo VI. Información sobre condiciones generales	158
Capítulo VII. Régimen sancionador	160

Amaierako xedapenak	
Lehenengoa	109
Bigarrena	109
Hirugarrena	109
Laugarrena	109
Xedapen derogatzailea	109
22/1994 LEGEA, 1994KO UZTAILAREN 6KOA, PRODUKTU AKAS- TUNEK ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZUKIZUN ZIBILARI BURUZKOA	111
Zioen azalpena	113
Artikuluak: 1-15	115
Xedapen gehigarria	121
Xedapen iragankorra	123
Amaierako xedapenak	123
Lehenengoa	123
Bigarrena	123
Hirugarrena	123
Laugarrena	123
7/1998 LEGEA, 1998KO APIRILAREN 13KOA, KONTRATUETAKO BALDINTZA OROKORREI BURUZKOA	125
Zioen azalpena	127
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	141
II. kapitulua. Zenbait baldintza orokorren txertaezintasuna eta deuseztasuna	147
III. kapitulua. Kontratuetao Baldintza Orokorren Erregistroa	149
IV. kapitulua. Bukarazteko, erretraktatzeko eta baldintza orokorrak deklaratzeko akzio kolektiboak	151
V. kapitulua. Epaiak publiko egitea	159
VI. kapitulua. Baldintza orokorrei buruzko informazioa	159
VII. kapitulua. Zehapen-araubidea	161

Disposiciones adicionales	160
Primera. Modificación de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios	160
Segunda. Modificación de la legislación hipotecaria	174
Tercera.	180
Disposición transitoria	182
Única. Aplicación y adaptación	182
Disposición derogatoria	182
Disposiciones finales	182
Primera	182
Segunda	182
Tercera	182
LÉXICO	193

Xedapen Gehigarriak	161
Lehena. 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra, aldatzea	161
Bigarrena. Hipoteka-legeria aldatzea	175
Hirugarrena.	181
Xedapen iragankorra	183
Bakarra. Aplikazioa eta egokitzea	183
Xedapen derogatzailea	183
Amaierako xedapenak	183
Lehenengoa	183
Bigarrena	183
Hirugarrena	183
LEXIKOA	187

Prólogo

La redacción de este prólogo representa para mí la oportunidad de mostrar, de nuevo, mi reconocimiento y agradecimiento ante la circunstancia de que la Colección «Leyes» continúe aumentando, como fruto y desarrollo del Convenio de Colaboración que, en materia de traducción de textos jurídicos, se halla suscrito entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Las leyes que configuran el presente volumen son la Ley 26/1984, de 19 de Julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios —LGDCyU—; la Ley 22/1994, de 6 de Julio, de Responsabilidad Civil por los Daños Causados por Productos Defectuosos —LRCDCPD— y la Ley 7/1998, de 13 de Abril, sobre Condiciones Generales de la Contratación —LCGC—.

Ahora bien, con carácter previo al análisis de cada una de las leyes que engrosan el presente volumen, resulta preciso realizar un enunciado de las características comunes que conforman a las mismas. En este sentido, cabe predicar, principalmente, dos de dichas características comunes. En primer lugar, las tres leyes se hallan, teleológica o finalistamente, dirigidas a la tutela y protección de los consumidores y usuarios, si bien desde ópticas y ámbitos propios y diferentes, aunque siendo complementarias entre sí. En efecto, atendiendo a un criterio meramente cronológico, las sucesivas leyes apelan directamente en sus Exposiciones de Motivos a la primera de ellas, esto es, a la Ley 26/1984, de 19 de Julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios —LGDCyU—, a la cual, posteriormente, en su parte dispositiva, completan, integran e, incluso, modifican. Por ello, resulta imprescindible analizar conjuntamente las citadas normas en los casos en los que pudiere verse afectada la protección de los derechos de los consumidores y usuarios. En segundo lugar, las tres normas constituyen también el mecanismo de incorporar a la normativa estatal las disposiciones existentes en las Comunidades Europeas, incluso en el supuesto —como acontece con la Ley 26/1984, de 19 de Julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios [LGDCyU]— en

Hitzaurrea

Legeak bilduma garatzen eta hazten ari den honetan —Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateak testu juridikoen itzulpenerako sinaturiko lankidetzahitzarmenaren ondorioz—, nire aitortza eta esker ona adierazteko aukera ematen dit, berriz ere, hitzaurre hau idazteak.

Liburuki honetan hiru lege jaso dira: 26/1984 Legea, 1984ko uztailaren 19koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako lege orokorra; 22/1994 Legea, 1994ko uztailaren 6koa, produktu akastunek sorturiko kalteen erantzukizun zibilar buruzkoa; eta 7/1998 Legea, 1998ko apirilaren 13koa, kontratuetako baldintza orokorrei buruzkoa.

Nolanahi ere, liburuki hau osatzen duten legeetako bakoitzaren analisi txiki bat egin aurretik, hirurek batera dituzten ezaugarri batzuk zerrendatu beharra dago. Alde horretatik, bi dira bereziki aipagarriak. Lehenik eta behin, hiru legeak dira, teleologikoki edo xedearen aldetik, kontsumitzaile eta erabiltzaileen zaintzari eta babesari begirakoak, baina bakoitza bere ikuspegitik eta eremutik, elkar osatzen badute ere. Izan ere, kronologiari begiratuta, hiruretan lehena hartzen dute erreferentziazat hurrengo biek beren zioen azalpenean: 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra. Gero, xedapenen atalean, hura osatu, integratu eta aldatu egiten dute. Horregatik, ezinbestekoa da batera aztertzea hiru arauok, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa ukiturik gerta daitekeen kasuetan. Bigarrenik, hiru arauok dira Europar Erkidegoetako xedapenak Estatuko legeriara ekartzeko bide, are —1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra da horren adibide— erkidegoko araudi hori artean lotura-indarrekoa eta aplikatzekoa ez den kasuan ere, hura berronetsi eta indarrean sartu zen garaian Espainia ez baitzen artean Europar Erkidegoetan sartua. Ezaugarri horiek direla eta, esan behar da bete-betean asmatu dela libu-

que dicha normativa comunitaria no fuere aún vinculante ni aplicable, toda vez que en la fecha de promulgación y entrada en vigor de la misma todavía no se había producido la incorporación del estado a las Comunidades Europeas. Pues bien, en base a las citadas características, cabría señalar que la elección y selección de las normas integradas en esta publicación constituye todo un acierto por su rigor técnico, coherencia estructural y unidad y homogeneidad temática.

Una vez realizada la configuración contextual de las normas, procede realizar una mínima semblanza individualizada de las mismas. Por lo que respecta a la Ley 26/1984, de 19 de Julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios —LGDCyU—, ésta ya recoge, como expresamente lo señala en su Exposición de Motivos, «los principios y directrices vigentes en esta materia en la Comunidad Económica Europea». Ahora bien, la misma norma reconoce que su regulación, si bien contempla tutelar derechos de naturaleza muy diversa —protección de la salud y seguridad, protección de los intereses económicos y sociales, derecho a la información, derecho a la educación y formación en materia de consumo y derecho de representación, consulta y participación—, no resulta, en cambio, completa ni integral, ya que «no excluye ni suplanta otras actuaciones y desarrollos normativos derivados de ámbitos competenciales cercanos o conexos». Ello no obstante, dicha ley presenta rasgos de política legislativa, por cuanto que declara «los principios, criterios, obligaciones y derechos» que, configurando la defensa de los consumidores y usuarios, han de ser observados por los poderes públicos en las actuaciones y desarrollos normativos futuros, en el marco de la Doctrina establecida por el Tribunal Constitucional. Pues bien, precisamente el Tribunal Constitucional —en su Sentencia 15/1989, de 26 de Enero—, estimó parcialmente los recursos de inconstitucionalidad interpuestos contra la Ley y declaró inconstitucionales y, por lo tanto, nulos determinados artículos, al tiempo que declaraba que otros artículos no resultaban de aplicación directa en las Comunidades Autónomas que, en virtud de sus Estatutos de Autonomía, hubieren asumido competencia sobre la defensa de los consumidores y usuarios y sobre las asociaciones de los mismos.

En lo atinente a la Ley 22/1994, de 6 de Julio, de Responsabilidad Civil por los Daños Causados por Productos Defectuosos —LRCDPCD—, cabría destacar, primeramente, que la misma supone una adaptación de la Directiva 85/374/CEE, de 25 de Julio de 1985, sobre Responsabilidad Civil por los Daños Ocasionados por Productos Defectuosos. Esta Ley, tal y como se ha comentado anteriormente, completa e integra la Ley 26/1984, de 19 de Julio, ampliando el ámbito objetivo y subjetivo de tutela y estableciendo un régimen de responsabilidad objetiva y solidaria, del que el fabricante e importador únicamente podrán exonerarse en virtud de estrictas causas tasadas —artículos 6 y 9—. Asimismo, esta Ley de carácter especial contempla expresamente un ma-

ruki honetan bilduriko arauak aukeratzeko orduan, aukera zorrotza baita tekniki, koherentea egituraren aldetik eta homogeneoa gaien aldetik.

Arauk beren testuinguruan kokatu ondoren, banan banako aurkezpen txiki bat egitea dagokigu. 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legeak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorrak, bere baitan ditu, Zioen Azalpenean dioenez, «gai horretan Europar Ekonomia Erkidegoan indarrean diren printzipio eta gidalerroak». Hala ere, arauak berak aitortzen du arautze hori, izaera anitzetako eskubide batzuk babestea aintzat hartu bada ere —osasunaren eta segurtasunaren babesa, interes ekonomiko eta sozialen babesa, informaziorako eskubidea, kontsumo-alorreko heziketaren eta prestakuntzarako eskubidea, eta ordekaritzarako, kontsultarako eta parte-hartzerako eskubidea— ez dela hala ere osoa eta integrala, zeren «ez du baztertzeko, ez ordeztzeko, beste jarduketak batzuk egitea edo arau batzuk garatzea beronen hurbileko diren edo beronekin konexioa duten eskumen-eremuetan». Hala eta guztiz ere, lege horrek baditu legegintza-politikaren ezaugarri batzuk, botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari dagokionez «zer printzipio, irizpide, betebeharrak eta eskubide» begiratu behar dituzten deklaratzeko baita hartan, Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinaren barruan. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak —1989ko urtarrilaren 26ko 15/1989 Epaian—lege horren kontra jarritako konstituzio kontraktotasun-errekurtsoak partez baietsi, eta konstituzioaren kontrako deklaratu zituen, eta ondorioz deusez, zenbait artikuluko; aldi berean, deklaratu zuen zenbait artikuluko ez zirela zuzenean aplikatzekoak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari eta haien elkartei buruzko eskumenak autonomia-estatutuaren bitartez berenganatuak zituzten autonomia-erkidegoetan.

Produktu akastunek sorturiko kalteen erantzukizun zibilari buruzko legerari dagokionez (1994ko uztailaren 6ko 22/1994 Legea), aipagarria da, lehenik, produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzko 1985ko uztailaren 25ko 85/374/EEE zuzentarauaren egokitzapena dela berori. Gorago esan bezala, 22/1994 Legeak osatu eta integratu egiten du 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legea, babes-eremu objektibo eta subjektiboa zabalduz eta erantzukizun-araubide objektibo eta solidario bat ezarri; hala, fabrikatzaile eta inportatzaileak kausa zehatz ezarri batzuegatik bakarrik —6. eta 9. artikulukoak— gabetu ahal izango dira erantzukizunetik. Era berean, izaera bereziko lege horrek babes-araubide handiagoa aurreikusten du espresuki, eraginkortasunik gabeko-

por régimen de protección al declarar la ineficacia de las cláusulas de exoneración o limitación de la responsabilidad y establecer la compatibilidad de las acciones que dimanen de la misma con otros derechos que pudiere tener el perjudicado como consecuencia de la responsabilidad contractual o extracontractual del fabricante, importador o de cualquier otra persona —artículos 14 y 15—.

En tercer lugar, la Ley 7/1998, de 13 de Abril, sobre Condiciones Generales de la Contratación —LCGC— también es el resultado de la transposición de la normativa de la Unión Europea —Directiva 93/13/CEE, del Consejo, de 5 de Abril de 1993, sobre Cláusulas Abusivas en los Contratos Celebrados con Consumidores—. La finalidad de esta Ley, tal y como se manifiesta en su Exposición de Motivos, se halla en la protección de la igualdad de los contratantes, como presupuesto necesario de la justicia de los contenidos contractuales y uno de los imperativos de la política jurídica en el ámbito de la actividad económica. Esta Ley presenta una gran importancia, ya que, entre otros aspectos, distingue las «cláusulas abusivas» de las «condiciones generales de la contratación»; crea un registro jurídico —Registro de Condiciones Generales de la Contratación—, que aprovecha la estructura dispensada por los Registros de la Propiedad y Mercantiles; regula las acciones colectivas, la publicidad e inscripción de las sentencias de cesación o retractación, las obligaciones profesionales de Notarios y Registradores de la Propiedad y Mercantiles; modifica la Ley Hipotecaria para acomodar las obligaciones profesionales de los Registradores de la Propiedad a la normativa sobre protección al consumidor y sobre condiciones generales e, incluso, modifica la misma Ley 26/1984, de 19 de Julio, introduciendo, en particular, una definición de cláusula abusiva y haciendo una enumeración enunciativa de las cláusulas abusivas, que resulta ser superior al elenco de las establecidas por la Directiva comunitaria.

En virtud de todo lo manifestado, reitero, nuevamente, mi agradecimiento y felicitación por esta publicación y animo a que la colaboración fruto del Convenio siga dando resultados tan válidos, útiles y enriquecedores.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social

tzat jotzen baititu erantzukizunez gabetzeko edo erantzukizuna mugatzeko klausulak, eta bateragarri jotzen baititu lege horretatik eratortzen diren akzioak kaltetunak izan ditzakeen beste eskubide batzuekin —fabrikatzailearen, inportatzailearen edo beste edozein pertsonaren kontratuzko erantzukizuna dela eta (14. eta 15. artikulua).

Hirugarrenik, 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legea, kontratueta baldintza orokorre buruzkoa, Europar Erkidegoaren zuzentarau baten transposizioa da —1993ko apirilaren 5eko 93/13 EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, kontsumitzaileekin egindako kontratueta abusuzko klausulei buruzkoa—. Lege horren xedea, Zioen Azalpenean adierazten den bezala, kontratugileen berdintasuna babestea da, kontratuen edukiak bidezko izateko behar-beharrezko eskakizuna eta ekonomia-jardueraren arloko politika juridikoaren beharrik zinetariko bat denez hori. Lege horrek garrantzi handia du, zeren, bestek beste, bereizi egiten du zer diren «abusuzko klausulak» eta zer «kontratueta baldintza orokorrak»; erregistro juridiko bat sortzen du —Kontratueta Baldintza Orokorren Erregistroa—, jabetza-eta merkataritza-erregistratzaileek eskaintako egitura baliatzen duena; akzio kolektiboak, bukarazte- eta erretraktatze-epaien publikotasuna eta inskripzioa, notarioen eta jabetza-eta merkataritza-erregistratzaileen betebeharrak profesionalak arautzen ditu; Hipoteken Legea aldatzen du, jabetza-erregistratzaileen betebeharrak profesionalak kontsumitzailearen babesari eta baldintza orokorre buruzko araudira egokitzearen; eta, gainera, 26/1984 Legea bera aldatzen du, abusuzko klausula definituz eta abusuzko klausulen zerrendatze ireki bat eginez, Erkidego zuzentarauak ezarritakoetatik haragokoa.

Horregatik guztiagatik, berriz ere nire esker ona adierazi nahi dut, eta egileei zorionak eman, argitalpen hau dela eta. Hitzarmenaren ondoriozko lankidetzak horrelako emaitza baliotsu, baliagarri eta aberasgarriak ematen jarrai beza.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua

Aurkezpena

Bildumako bosgarren ale honek kontsumitzaileen babesbermatzen duten arau nagusien itzulpena jasotzen du; hala nola, 26/1984 Legea, 1984ko uztailaren 19koa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako; 7/1998 Legea, 1988ko apirilaren 13koa, kontratu-baldintza orokorreko buruzkoa; eta 22/1994 Legea, 1994ko uztailaren 6koa, produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzkoa.

Itzultzeke dauden Espainiako oinarrizko arau guztien artean, zergatik hautatu ditugu, bada, kontsumo legeak? Lehenik eta behin, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako arauak duten gizarte-mailako garrantzi eta hedaduragatik. Gizartean, hiritarron artean, gehien zabalduko eta erabilitako zuzenbide-arloa dela esan daiteke kontsumitzaileei buruzkoa. Ez da alferretan esaten gure gizartea kontsumo-gizartea dela, eta hortik erraz ondoriozta liteke kontsumo-arauek gure artean duten garrantzia. Kontsumo Zuzenbidea deritzona XX. mendearen erdialdera sortu zen, Estatu Batuetako kontsumitzaile mugimenduaren eskutik. Hasierako aldarrikapen haien lorpen nagusienetakoa izan zen agerraraztea ordu arteko Zuzenbide Zibileko eta Merkataritza Zuzenbideko arau klasikoak ez zirela gauza masan egindako trafikoko ekonomikoaren aitzinean kontsumitzailea babesteko. Fenomeno horretan, kontsumitzailea subjektu pasibo huts gisa aritzen da eta enpresaren boterearen aurrean indarge azaltzen. Bidegabeko egoera horren oreka berreskuratzera etorri zen, hain zuzen, Kontsumo Zuzenbidea. Ordutik, etengabe hazten joan da hasierako arau multzoa, eta argi dago oraindik ere gehiago zabalduko dela, merkatu tradizionala aldatzen ari baita egunez egun eta gizarteak behar berriak baititu: merkatuak eta zerbitzuak globalizatzen ari dira; Europako diru bakarra indarrean da; teknologia berriak sortzen eta merkaturatzen dira egunero... Eragile horien guztien ondorioz, esparru berri eta egokia finkatu beharra zegoen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako lagungarri diren alderdi guztiak arautzeko.

Euskal Herriko ordenamendu juridikoaren beste hainbat arlotan gertatzen den legez, kontsumoari buruzko legeria ere hainbat iturritatik bildutako urek osatzen dute: Europar Batasunaz gain, Espainiako Parlamentuak eta autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek eskumena eta zeresana dute gai horretan. Euskal Autonomia Erkidegoak, eskumen horren kariaz, 6/2005 Legea, abenduaren 22koa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuarena aldarrikatu zuen, zeinak aurreko lege bat, 10/1981 Legea, Bezeroaren Araudiari buruzkoa aldatu eta eguneratzen duen; eta Nafarroako Foru Erkidegoak berriz, argitara eman berri du 7/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa. Espainiako legeria itzuli aurretik, bazez, beraz, euskarazko lege-testuen corpus xume bat zuzenbidearen eremu honetan. Alabaina, Europako eta Espainiako legebiltzarrek promulgatu eta Euskal Herrian ere aplikatu beharreko oinarritzko legeria ugariaren euskarazko bertsiorik ez zegoen. Hutsune handi hori betetzera dator, hain zuzen, aurkeztu ari garen lege-bilduma hau.

Aipatu legez, Estatuko Kontsumo Zuzenbidea osatzen duten arauak askotarikoak dira. Arau andana horren aurrean zer irizpide erabili dugu, bada, bilduma hau osatzen duten legeak aukeratu eta gainerakoak, oraingoz bederen, albo batera uzteko? Hautua ez da ausazkoa izan; hizpide dugun alor honetan aldarrikatu izan diren Estatuko bi arau nagusiak, 1984ko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako legea eta 1988ko kontratu-baldintza orokorreari buruzkoa dira. Bi lege horiek osatzen dute Kontsumo Zuzenbidearen muina, eta esan daiteke gainerako lege gehienak gunehorretatik eratorritako printzipio orokorren garapen sektorialak direla. Aipatu arauetan aldaketa garrantzitsuak eragin ditu berriki Estatuko 44/2006 Legeak, abenduaren 29koak, kontsumitzaileen eta erabiltzen babesa hobetzeari buruzkoak. Aldaketa horiek guztiak jasota daude liburuki honetan, Estatuko Kontsumo Zuzenbidearen bertsio eguneratua eskaintze aldera.

Aipaturiko lege nagusiez gain, bada beste arau bat jurisprudentzian eta bostere publikoen jardunean eragin nabarmena izan duena; hots, 22/1994 Legea, uztailaren 6koa, produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzkoa. Fabrikatzailearen erantzukizun objektiboaren araua ezartzen duen neurrian, lege horrek, kontsumitzaileei baino gehiago hartzaile multzo zabalago bati zuzendutakoa izan arren —produktu akastunak kaltetutako guztiak hartzen baititu lege horren eremu subjektiboak—, Kontsumo Zuzenbidearen bigarren ardatza osatzen duela esan izan da. Horra, beraz, aukeratutako arauak eta aukeraren arrazoiak, zeinen erantzule Itziar Alkorta Idiakez, Zuzenbide Zibileko irakaslea izan den.

Lan-taldea

Aipatu beharrekoak dira itzulpenaren metodoari buruzkoak ere, eta horren erantzule nortzuk garen. Kontsumo-legeen gaineko liburuak honetan, bilduma osatzen duten gainerako lege guztietan jarraitutako itzulpen-estrategia bera erabili dugu. Hasteko, bi itzultzaile profesionalek, Patxi Petrirenak eta Irene Aldasorok, testuen itzulpen «gordina» egin dute; lehen bertsio horretatik abiatuz, Itziar Alkorta Zuzenbide Zibileko irakasleak, Antton Eloseggi Euskara Teknikoko irakasleak eta Juan Garzia Garmendia EHUko Euskara Zerbitzuko teknikariak, bakoitzak bere ikuspegitik, testuari oharrak egin dizkiote; eta azkenik, lan-talde osoak, elkarlanean, testuaren orrazketa sakona egin du, artikuluz artikuluz itzulpenean sortzen ziren askotariko arazoak eta zalantzak banan bana aztertuz eta bakoitzari ahal zen irtenbiderik hoberena emanez.

Lexikoa

Liburuaren azken orrietan glosario labur bat jaso dugu, itzultitako hiru lege-testuen corpusetik ateratako terminoekin osatua. Sarrerek gazteleraz zein euskaraz jaso ditugu, bietara izatea irakurlearen intereseko izango delakoan. Jasotako terminoak zuzenbide eremuak dira nagusiki, eta beste batzuk, berriz, zuzenbidekoak ez izanagatik ere, kontsumitzaileen babesari buruzko lege-testu horretan garrantzi berezia dutenak.

Itziar ALKORTA IDIAKEZ

26/1984 LEGEA,
1984KO UZTAILAREN 19KOA,
KONTSUMITZAILE
ETA ERABILTZAILEEN
DEFENTSARAKO OROKORRA

LEY 26/1984, DE 19 DE JULIO,
GENERAL PARA LA DEFENSA DE
LOS CONSUMIDORES Y USUARIOS

**Ley 26/1984, de 19 de julio,
general para la defensa de los consumidores y usuarios¹**

PREÁMBULO

El artículo 51 de la Constitución de 27 de diciembre de 1978, establece que los poderes públicos garantizarán la defensa de los consumidores y usuarios, protegiendo, mediante procedimientos eficaces, la seguridad, la salud y los legítimos intereses económicos de los mismos. Asimismo promoverán su información y educación, fomentarán sus organizaciones y las oirán en las cuestiones que puedan afectarles.

Con el fin de dar cumplimiento al citado mandato constitucional, la presente Ley, para cuya redacción se han contemplado los principios y directrices vigentes en esta materia en la Comunidad Económica Europea, aspira a dotar a los consumidores y usuarios de un instrumento legal de protección y defensa, que no excluye ni suplanta otras actuaciones y desarrollos normativos derivados de ámbitos competenciales cercanos o conexos, tales como la legislación mercantil, penal o procesal y las normas sobre seguridad industrial, higiene y salud pública, ordenación de la producción y comercio interior.

Los objetivos de la Ley se concretan en:

1. Establecer, sobre bases firmes y directas, los procedimientos eficaces para la defensa de los consumidores y usuarios.
2. Disponer del marco legal adecuado para favorecer un desarrollo óptimo del movimiento asociativo en este campo.
3. Declarar los principios, criterios, obligaciones y derechos que configuran la defensa de los consumidores y usuarios y que, en el ámbito de sus competencias,

¹ BOE, de 24 de julio de 1984, núms. 175 y 176. Modificada por: Sentencia 15/1989 del Tribunal Constitucional (BOE, 20 de febrero de 1989, núm. 43); Ley 7/1998 sobre Condiciones generales de la Contratación (BOE, 14 de abril de 1998, núm. 89); Ley 39/2002, de 28 de octubre, de transposición al ordenamiento jurídico español de diversas directivas comunitarias en materia de protección de los intereses de los consumidores y usuarios (BOE, 29 de octubre de 2002, núm. 259); Ley 22/2003, de 9 de julio, concursal (BOE, 10 de julio de 2003, núm. 164); Ley 23/2003, de 10 de julio, de Garantías en la Venta de Bienes de Consumo (BOE de 11 de julio 2003, núm. 165); Ley 44/2006, de 29 de diciembre, de mejora de la protección de consumidores y usuarios (BOE, de 30 de diciembre de 2006, núm. 312).

**26/1984 Legea, 1984ko uztailaren 19koa,
kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra¹**

AITZINSOLASA

1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 51. artikulua ezartzen du botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dutela, prozedura eraginkorrez babestuz haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak. Halaber, haien informazioa eta heziketa sustatuko dutela, haien erakundeak bultzatuko dituztela, eta erakundeoi entzuerara emango dietela kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragin diezaieketen gaitan.

Konstituzio-agindu hori betetzeko xedez, aintzat harturik Europar Ekonomia Erkidegoan arlo honetan indarrean diren printzipioak eta gidalerroak, lege hau idatzi da, kontsumitzaile eta erabiltzaileek beren babes eta defentsarako lege-tresna bat izan dezaten. Lege honek ez du haatik baztertzen, ez ordeztzen, beste jarduketara batzuk egitea edo arau batzuk garatzea beronen hurbileko diren edo beronekin konexioa duten eskumen-eremuetan, hala nola merkataritza-legerian, legeria penalean edo prozesalean, eta industria-segurtasunari, higienerari eta osasun publikoari, produkzio-antolamenduari eta barne-merkataritzari buruzko arauetan.

Hauek dira zehazki legearen xedeak:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako prozedura eraginkorrak ezartzea, oinarri irmo eta zuzeneko batzuen gainean.
2. Lege-esparru egokia izatea alor honetako elkartze-mugimendua al bait garatzen laguntzeko.
3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa eratzen duten printzipio, irizpide, betebeharrak eta eskubideak deklaratzeko, horiek guztiak kontuan izan beharko

¹ BOE, 1984ko uztailaren 24a, 175 eta 176 zenbakiak. Honako hauek aldatua: Konstituzio Auzitegiaren 15/1989 Epaia (BOE, 1989ko otsailaren 20a, 43. zenbakia); 7/1998 Legea, kontratuetako baldintza orokorrei buruzkoa (BOE, 1998ko apirilaren 14a, 89. zenbakia); 39/2002 Legea, 2002ko urriaren 28koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babesteari buruzko Europar Erkidegoko zebait zuzentarau Espainiako ordenamendu juridikoan sartzekoa (BOE, 2002ko urriaren 29a, 259. zenbakia); 22/2003 Legea, 2003ko uztailaren 9koa, konkurtsoei buruzkoa (BOE, 2003ko uztailaren 10a, 164. zenbakia); 23/2003 Legea, 2003ko uztailaren 10ekoa, kontsumo-ondasunen salmentako bermeei buruzkoa (BOE, 2003ko uztailaren 11, 165. zenbakia); 44/2006 Legea, abenduaren 29koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaren hobetzeari buruzkoa (BOE, 2006ko abenduaren 30a, 312. zenbakia).

habrán de ser tenidos en cuenta por los poderes públicos en las actuaciones y desarrollos normativos futuros en el marco de la doctrina sentada por el Tribunal Constitucional.

CAPÍTULO I

Ámbito de aplicación y derechos de los consumidores

Artículo 1

1*. En desarrollo del art. 51.1 y 2 de la Constitución, esta Ley tiene por objeto la defensa de los consumidores y usuarios, lo que, de acuerdo con el art. 53.3 de la misma tiene el carácter de principio general informador del ordenamiento jurídico.

En todo caso la defensa de los consumidores y usuarios se hará en el marco del sistema económico diseñado en los artículos 38 y 128 de la Constitución y con sujeción a lo establecido en el artículo 139.

2. A los efectos de esta Ley, son consumidores o usuarios las personas físicas o jurídicas que adquieren, utilizan o disfrutan como destinatarios finales, bienes muebles o inmuebles, productos, servicios, actividades o funciones, cualquiera que sea la naturaleza pública o privada, individual o colectiva de quienes los producen, facilitan, suministran o expiden.

3. No tendrán la consideración de consumidores o usuarios quienes sin constituirse en destinatarios finales, adquieran, almacenen, utilicen o consuman bienes o servicios, con el fin de integrarlos en procesos de producción, transformación, comercialización o prestación a terceros.

Artículo 2

1. Son derechos básicos de los consumidores y usuarios:

a) La protección contra los riesgos que puedan afectar su salud o seguridad.

* Este apartado primero, según STC 15/1989, no es de aplicación directa en las Comunidades autónomas que constitucionalmente, en virtud de sus respectivos Estatutos de Autonomía, hayan asumido la competencia plena sobre defensa de los consumidores y usuarios.

baitituzte botere publikoek etorkizuneko jarduketetan eta arau-garapenetan, bakoitzak bere eskumenen barruan eta betiere Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinaren esparruan.

I. KAPITULUA

Aplikazio-eremua eta kontsumitzaileen eskubideak

1. artikulua

1*. Konstituzioaren 51. artikulua 1. eta 2. zenbakiek diotena garatzen duen lege honen xedea kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa da, eta defentsa hori, Konstituzioaren 53.3. artikulua arabera, ordenamendu juridikoa informatu behar duten printzipio orokorretakoa da.

Edozein kasutan, Konstituzioaren 38. eta 128. artikuluetan taxuturiko sistema ekonomikoaren esparruan egingo da kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa, eta 139. artikuluan ezarritakoari atxikiz.

2. Lege honetarako, honako pertsona fisiko edo juridiko hauek hartzen dira kontsumitzaile edo erabiltzailetzat: azken hartzaile gisa ondasun higigarri edo higiezinak, produktuak, zerbitzuak, jarduerak edo funtzioak eskuratzen, erabiltzen edo gozatzen dituztenak, edozein delarik ere haiek ekoitzi, eskura jarri, hornitu edo bidaltzen dituztenen izaera publikoa edo pribatua, banakakoa edo kolektiboa.

3. Ez dira kontsumitzaile edo erabiltzailetzat hartuko, aldiz, azken hartzaile izan gabe ondasunak edo zerbitzuak eskuratzen, biltegitratzen, erabiltzen edo kontsumitzen dituztenak, ekoizte-, eraldatze- edo merkaturatze-prozesuetan edo hirugarren batzuei emateko prozesuetan sartzeko xedez.

2. artikulua

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen oinarrizko eskubide dira:

a) Beren osasunari edo segurtasunari eragin diezaioketen arriskuen kontra-ko babesa izatea.

* Lehenengo zenbaki hau, Konstituzio Auzitegiaren 15/1989 Epaiaren arabera, ez da zuzenean aplikatzen kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko eskumen osoa autonomia-estatuaren bitartez berenganatua duten autonomia-erkidegoetan.

b) La protección de sus legítimos intereses económicos y sociales; en particular, frente a la inclusión de cláusulas abusivas en los contratos

c) La indemnización o reparación de los daños y perjuicios sufridos.

d) La información correcta sobre los diferentes productos o servicios y la educación y divulgación, para facilitar el conocimiento sobre su adecuado uso, consumo o disfrute.

e) La audiencia en consulta, la participación en el procedimiento de elaboración de las disposiciones generales que les afectan directamente y la representación de sus intereses, todo ello a través de las asociaciones, agrupaciones o confederaciones de consumidores y usuarios legalmente constituidas.

f) La protección jurídica, administrativa y técnica en las situaciones de inferioridad, subordinación o indefensión.

2. Los derechos de los consumidores y usuarios serán protegidos prioritariamente cuando guarden relación directa con productos o servicios de uso o consumo común, ordinario y generalizado.

3. La renuncia previa de los derechos que esta Ley reconoce a los consumidores y usuarios en la adquisición y utilización de bienes o servicios es nula.

Asimismo son nulos los actos realizados en fraude de esta Ley, de conformidad con el art. 6.1 del Código Civil.

CAPÍTULO II

Protección de la salud y seguridad

Artículo 3

1. Los productos, actividades y servicios puestos en el mercado a disposición de los consumidores o usuarios, no implicarán riesgos para su salud o seguridad, salvo los usual o reglamentariamente admitidos en condiciones normales y previsibles de utilización.

2. Con carácter general, los riesgos susceptibles de provenir de una utilización previsible de los bienes y servicios, habida cuenta de su naturaleza y de las personas a las que van destinados, deben ser puestos en conocimiento previo de los consumidores o usuarios por medios apropiados, conforme a lo indicado en el art. 13.f).

b) Beren interes ekonomiko eta sozial legitimoen babesa izatea; batez ere, kontratuetan abusuzko klausulak sartzearen kontra.

c) Izandako kalte eta galerak ordaintzea edo konpontzea.

d) Produktu edo zerbitzuei buruzko informazio zuzena izatea, eta orobat hezkuntza eta dibulgazioa, produktu edo zerbitzuok egoki erabiltzen, kontsumitzen edo gozaten jakiteko.

e) Kontsumituak izatea, zuzenean eragiten dieten xedapen orokorrak lantzeko prozesuan parte hartzea eta beren interesak ordezkatzeari; hori guztia, legez eraturako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte, talde edo konfederazioen birtartez.

f) Babes juridikoa, administratiboa eta teknikoa izatea gutxiagotasuna, mendekotasuna edo defentsa-gabezia gertatzen den egoeretan.

2. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak lehentasunez babestekoak izango dira zerikusi zuzena badute erabilera eta kontsumo arrunt, ohiko eta orokorreko produktu edo zerbitzuekin.

3. Deuseza da kontsumitzaile eta erabiltzaileek alde aurretik uko egitea lege honek ondasun edo zerbitzuen erosketan eta erabileran aitortzen dizkien eskubideei.

Orobat dira deusez lege honi iruzur egiten dioten egintzak, Kode Zibilaren 6.1 artikulua araber.

II. KAPITULUA

Osasunaren eta segurtasunaren babesa

3. artikulua

1. Merkatuan kontsumitzaile eta erabiltzaileen esku jarritako produktu, jarduera eta zerbitzuek ez dute arriskurik izango haien osasun edo segurtasunerako, salbu normal eta aurreikus daitekeen moduan erabilia ohituraz edo erregelamenduz onarturiko arriskuak.

2. Oro har, alde aurretik jakinarazi behar zaie kontsumitzaile eta erabiltzaileei, 13.f) artikuluan adierazitakoaren araber eta baliabide egokienak erabiliz, zer arrisku etor daitekeen ondasun eta zerbitzuak aurreikus daitekeen moduan erabiltzetik, kontuan izanik zein den ondasun eta zerbitzuen izaera eta zein haien xedekoa.

Artículo 4

1. Los reglamentos reguladores de los diferentes productos, actividades o servicios determinarán al menos:

- a) Los conceptos, definiciones, naturaleza, características y clasificaciones.
- b) Las condiciones y requisitos de las instalaciones y del personal cualificado que deba atenderlas.
- c) Los procedimientos o tratamientos usuales de fabricación, distribución y comercialización, permitidos, sujetos a autorización previa o prohibidos.
- d) Las listas positivas de aditivos autorizadas y revisadas por el Ministerio de Sanidad y Consumo.
- e) El etiquetado, presentación y publicidad.
- f) Las condiciones y requisitos técnicos de distribución, almacenamiento, comercialización, suministro, importación y exportación, sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación arancelaria y en la reguladora del comercio exterior.
- g) Los métodos oficiales de análisis, toma de muestras, control de calidad e inspección.
- h) Las garantías, responsabilidades, infracciones y sanciones.
- i) El régimen de autorización, registro y revisión.

2. Los fertilizantes, plaguicidas y todos los artículos que en su composición lleven sustancias tóxicas, cáusticas, corrosivas o abrasivas deberán ir envasados con las debidas garantías y llevar de forma visible las oportunas indicaciones que adviertan el riesgo de su manipulación.

3. Los extremos citados podrán ser objeto de codificación mediante normas comunes o generales, especialmente en materia de aditivos, productos tóxicos, material envasado, etiquetado, almacenaje, transporte y suministro, tomas de muestras, métodos de análisis, registro, inspección, responsabilidad y régimen sancionador.

Artículo 5

1. Para la protección de la salud y seguridad física de los consumidores y usuarios se regulará la importación, producción, transformación, almacenamiento, transporte, distribución y uso de los bienes y servicios, así como su control, vigilancia e inspección, en especial para los bienes de primera necesidad.

4. artikulua

1. Produktu, jarduera edo zerbitzu bakoitza arautzen duten erregelamen-
duek honako hauek xedatu beharko dituzte, gutxienez:

- a) Kontzeptuak, definizioak, izaera, ezaugarriak eta sailkapenak.
- b) Instalazioek eta haien ardura izango duten enplegatu kualifikatuek bete beharreko baldintzak eta betekizunak.
- c) Fabrikatzeko, banatzeko edo merkaturatzeko erabili ohi diren prozedura edo tratamenduak: baimenduak, aurretiazko baimena behar dutenak edo debekatuak.
- d) Osasun eta Kontsumo Ministerioak baimendu eta berrikusitako gehiga-
rri-zerrenda positiboak.
- e) Etiketatzea, aurkezpena eta publizitatea.
- f) Banatzeko, biltegitatzeko, merkaturatzeko, hornitzeko, inportatzeko
eta esportatzeko baldintza eta betekizun teknikoak, aduana-zergen legerian eta
kanpo-merkataritza arautzen duen legerian xedaturikoaren kalterik gabe.
- g) Analsiak, lagin-hartzeak, kalitate-kontrola eta ikuskapenak egiteko me-
todo ofizialak.
- h) Bermeak, erantzukizunak, arau-haustekak eta zehapenak.
- i) Baimentze-, erregistratze- eta berrikuste-araubidea.

2. Ongarriek, pestizidek eta konposizioan substantzia toxiko, kaustiko, ko-
rosibo edo urratzaileak dituzten artikuluek segurtasun-neurri egokiekin ontzi-
kiraturik egon beharko dute, eta haiek manipulatzearren arriskuez ohartarazteko
argibideak erakutsi beharko dituzte, ikusteko moduan.

3. Aipaturiko beharkizunak arau erkide edo orokorren bidez kodetu
ahal izango dira, batez ere gai hauei dagokienez: gehigarriak, produktu toxi-
koak, material ontzikiraturak, etiketatzea, biltegitratzea, garraioa eta hornidu-
ra, lagin-hartzeak, analisi-metodoak, erregistroa, ikuskapena, erantzukizuna eta
zehapen-araubidea.

5. artikulua

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen osasuna eta segurtasun fisikoa babeste-
ko, arautu egingo da ondasun eta zerbitzuen inportazioa, ekoizpena, eraldaketa,
biltegitratzea, garraioa, banaketa eta erabilera, eta orobat haien kontrola, zaintza
eta ikuskapena, batez ere oinarrizko beharrianetarako ondasunak badira.

2. En todo caso, y como garantía de la salud y seguridad de las personas, se observará:

a) La prohibición de utilizar cualquier aditivo que no figure expresamente citado en las listas positivas autorizadas y publicadas por el Ministerio de Sanidad y Consumo, y siempre teniendo en cuenta la forma, límites y condiciones que allí se establezcan. Dichas listas serán permanentemente revisables por razones de salud pública o interés sanitario, sin que, por tanto, generen ningún tipo de derecho adquirido.

b) La prohibición de tener o almacenar productos reglamentariamente no permitidos o prohibidos, en los locales o instalaciones de producción, transformación, almacenamiento o transporte de alimentos o bebidas.

c) Las exigencias de control de los productos tóxicos o venenosos incluidos los resultantes de mezclas y otras manipulaciones industriales, de forma que pueda comprobarse con rapidez y eficacia su origen, distribución, destino y utilización.

d) La prohibición de venta a domicilio de bebidas y alimentos, sin perjuicio del reparto, distribución o suministro de los adquiridos o encargados por los consumidores en establecimientos comerciales autorizados para venta al público. Reglamentariamente, se regulará el régimen de autorización de ventas directas a domicilio que vengán siendo tradicionalmente practicadas en determinadas zonas del territorio nacional.

e) El cumplimiento de la normativa que establezcan las Corporaciones Locales o, en su caso, las Comunidades Autónomas sobre los casos, modalidades y condiciones en que podrá efectuarse la venta ambulante de bebidas y alimentos.

f) La prohibición de venta o suministro de alimentos envasados, cuando no conste en los envases, etiquetas, rótulos, cierres o precintos, el número del Registro General Sanitario de Alimentos, en la forma reglamentariamente establecida.

g) La obligación de retirar o suspender, mediante procedimientos eficaces, cualquier producto o servicio que no se ajuste a las condiciones y requisitos exigidos o que, por cualquier otra causa, suponga un riesgo previsible para la salud o seguridad de las personas.

h) La prohibición de importar artículos que no cumplan lo establecido en la presente Ley y disposiciones que la desarrollen.

i) Las exigencias de control de los productos manufacturados susceptibles de afectar a la seguridad física de las personas, prestando a este respecto la debida atención a los servicios de reparación y mantenimiento.

2. Edozein kasutan, eta pertsonen osasun eta segurtasunaren berme gisa, begiratu da:

a) Debeku izan dadila Osasun eta Kontsumo Ministerioak baimendu eta argitaraturiko zerrenda positiboetan espresuki aipatzen ez diren gehigarriak erabiltzea, beti kontuan izanik haietan ezarritako modua, mugak eta baldintzak. Zerrenda horiek etengabe berrikusi ahal izango dira osasun publikoari dagozkion arrazoiek edo osasun-interesek hala agintzen badute, baina ez dute ekarriko, haatik, inolako eskubide lehendik irabazirik.

b) Debeku izan dadila erregelamenduz baimendu gabeko edo debekaturiko produktuak edukitzea edo biltegitzea janari edo edariak ekoitzi, eraldatu, biltegitatu edo garraiatzeko lokal edo instalazioetan.

c) Kontrola daitezela produktu toxiko edo pozoitsuak, barne harturik nahasturaz eta bestelako manipulazio industrialez sortuak, laster eta eraginkortasunez egiaztatu ahal izan dadin haien jatorria, banaketa, norakoa eta erabilera.

d) Debeku izan dadila janari eta edariak etxex etxe saltzea, hargatik galarazi gabe publikoari saltzeko baimena duten saltokietan kontsumitzaileek erosi edo enkargaturikoak partitzea, banatzea edo hornitzea. Erregelamenduz ezarriko da nazio-lurraldearen eskualde batzuetan tradizioz etxex etxe egin ohi diren zuzeneko salmentak baimentzeko araubidea.

e) Bete dadila toki-korporazioek edo autonomia-erkidegoek edari eta janari salmenta ibiltarirako ezarritako araudia, salmenta hori zer kasu, modu eta baldintzatan egin daitekeen xedatzen duena.

f) Debeku izan dadila janari ontzikiratuak saldu edo hornitzea, ez bada ontziki, etiketa, errotulu, itxiera edo prezintuetan agertzen Janari Osasun Erregistro Orokorreko zenbakia, erregelamenduz ezarritako moduan.

g) Nahitaz erretiratu edo geldieran utzi dadila, prozedura eraginkorrez, bete beharreko baldintza eta eskakizunetara egokitzen ez den edozein produktu edo zerbitzu, edo beste zeinahi arrazoiengatik pertsonen osasun edo segurtasunerako arriskuren bat izan dezakeen edozein produktu edo zerbitzu.

h) Debeku izan dadila lege honetan eta lege hau garatzen duten xedapenetan ezarritakoa betetzen ez duten artikuluak inportatzea.

i) Kontrola daitezela pertsonen segurtasun fisikoan eragina izan dezakeen produktu manufakturatuen, behar bezalako arreta jarriko konpontze- eta mantentze-zerbitzuei.

j) La prohibición de utilizar en la construcción de viviendas y locales de uso público materiales y demás elementos susceptibles de generar riesgos para la salud y seguridad de las personas.

k) La obligación de que las especialidades farmacéuticas se presenten envasadas y cerradas con sistemas apropiados aportando en sus envases o prospectos información sobre composición, indicaciones y efectos adversos, modo de empleo y caducidad, de suerte que los profesionales sanitarios sean convenientemente informados y se garantice la seguridad, especialmente de la infancia, y se promueva la salud de los ciudadanos.

Artículo 6*

Los poderes públicos, directamente o en colaboración con las organizaciones de consumidores o usuarios, organizarán en el ámbito de sus competencias, campañas o actuaciones programadas de control de calidad, especialmente en relación con los siguientes productos y servicios:

a) Los de uso o consumo común, ordinario y generalizado.

b) Los que reflejen una mayor incidencia en los estudios estadísticos o epidemiológicos.

c) Los que sean objeto de reclamaciones o quejas, de las que razonablemente se deduzcan las situaciones de inferioridad, subordinación o indefensión a que se refiere el art. 23.e).

d) Los que sean objeto de programas específicos de investigación.

e) Aquellos otros que, en razón de su régimen o proceso de producción y comercialización, puedan ser más fácilmente objeto de fraude o adulteración.

Artículo 6 bis

1. Ante situaciones de riesgo para la salud y seguridad de los consumidores y usuarios, las administraciones públicas competentes podrán adoptar las medidas que resulten necesarias y proporcionadas para la desaparición del riesgo, incluida la intervención directa sobre las cosas y la compulsión directa sobre las personas. En estos supuestos, todos los gastos que se generen serán a cargo de

Kontratuak alde baten erabakiz aldatzeari eta iraupen mugagabeko kontratuak denbora baino lehen desegiteari dagozkion abusuzko klausulak eta onda-

cio de bienes y servicios, no se aplicarán a los contratos relativos a valores, con independencia de su forma de representación, instrumentos financieros y otros productos y servicios cuyo precio esté vinculado a una cotización, índice bursátil, o un tipo del mercado financiero que el profesional no controle, ni a los contratos de compraventa de divisas, cheques de viaje, o giros postales internacionales en divisas.

Se entenderá por profesional, a los efectos de esta disposición adicional, la persona física o jurídica que actúa dentro de su actividad profesional, ya sea pública o privada.

Segunda. Ámbito de aplicación

Lo dispuesto en la presente Ley será de aplicación a todo tipo de contratos en los que intervengan consumidores, con las condiciones y requisitos en ella establecidos, a falta de normativa sectorial específica, que en cualquier caso respetará el nivel de protección del consumidor previsto en aquélla.

Tercera. Acciones de cesación

1. A falta de normativa sectorial específica, frente a las conductas de empresarios o profesionales contrarias a la presente Ley que lesionen intereses colectivos o intereses difusos de los consumidores y usuarios podrá ejercitarse la acción de cesación.

2. La acción de cesación se dirige a obtener una sentencia que condene al demandado a cesar en la conducta y a prohibir su reiteración futura. Asimismo, la acción podrá ejercerse para prohibir la realización de una conducta cuando ésta haya finalizado al tiempo de ejercitar la acción, si existen indicios suficientes que hagan temer su reiteración de modo inmediato.

3. La legitimación para el ejercicio de esta acción se regirá por lo dispuesto en el artículo 11, apartados 2 y 3, de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Asimismo estarán legitimados para el ejercicio de esta acción:

a) El Instituto Nacional del Consumo y los órganos o entidades correspondientes de las comunidades autónomas y de las corporaciones locales competentes en materia de defensa de los consumidores.

b) El Ministerio Fiscal.

sun eta zerbitzuen prezioak igotzeari dagozkionak ez dira aplikatzekoak izango kontratu hauetan: baloreei buruzko kontratuak, edozein dela ere balore horien ordezkapen-modua; finantza-tresnei buruzko kontratuak, eta prezioa kotizazio bati, burtsa-indize bati edo profesionalak kontrolatzen ez duen beste finantza-merkatuko tasa bati lotua duten bestelako produktu eta zerbitzuei buruzko kontratuak; eta dibisa-salerosketaren, bidaiatxekeen edo nazioartean dibisatan egindako postazko igorpenen inguruko kontratuak.

Profesionaltzat joko da, xedapen gehigarri honen ondorioetarako, bere lanbide-jarduera publiko edo pribatuan diharduen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Bigarrena. Aplikazio-eremua

Kontsumitzaileek parte hartzen duten kontratu guztietan aplikatzekoa izango da lege honetan xedaturikoa, lege honetan ezartzen diren baldintza eta betekizunekin, sektoreak berariazko araudirik izan ezean; berariazko araudiak, edozein kasutan, errespetatu egin beharko du lege honek kontsumitzailearentzat aurreikusten duen babes-maila.

Hirugarrena. Bukarazte-akzioak

1. Sektoreak berariazko araudirik ez duenean, enpresaburu edo profesionalen baten jokabidea lege honen kontrakoa bada eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektiboak edo interes lausoei kalte egiten badie, bukarazte-akzioa baliatu ahal izango da.

2. Bukarazte-akzioaren xedea hau da: demandatua bere jokabidea uztera kondenatzen duen epai bat lortzea, eta aurrerantzean jokabide horiek errepika daitezkeen debekatzea. Orobat balia daitezke akzioa hura baliatzeko unean amaitua den jokabide bat debekatzeko, jokabide hori berehala errepikatuko den beldur izateko zantzu nahikoa badago.

3. Bukarazte-akzioa baliatzeko legitimazioari dagokionez, Prozedura Zibilaren 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 11. artikulua 2. eta 3. zenbakietan xedaturikoak aginduko du.

Orobat egongo dira legitimaturik akzio hori baliatzeko:

a) Kontsumo Institutu Nazionala eta autonomia-erkidegoetan edo toki-korporazioetan kontsumitzaileen defentsari dagokionez eskudun diren organo edo entitateak.

b) Fiskaltza.

DISPOSICIONES FINALES

Primera

Dentro de los seis meses siguientes a la entrada en vigor de esta Ley, el Ministerio de Sanidad y Consumo promoverá, en colaboración con las Comunidades Autónomas, un plan para el tratamiento informático del Registro General Sanitario de Alimentos y de los demás registros sanitarios y datos de interés general para la defensa del consumidor o usuario.

Segunda

A efectos de lo establecido en el capítulo IX, será de aplicación el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio, sin perjuicio de sus ulteriores modificaciones o adaptaciones por el Gobierno.

Tercera

Dentro del año siguiente a la entrada en vigor de esta Ley, el Gobierno adaptará la estructura organizativa y las competencias del Instituto Nacional del Consumo y de los restantes órganos de la Administración del Estado con competencia en la materia, al contenido de la misma.

Cuarta

El Gobierno, en el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de esta Ley, aprobará el Reglamento o Reglamentos necesarios para su aplicación y desarrollo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las disposiciones que se opongan a lo dispuesto en esta Ley.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa

Lege hau indarrean jarri ondorengo sei hilabeteen barruan, Osasun eta Kontsumo Ministerioak, autonomia-erkidegoekin batera, plan bat sustatuko du Janariaren Erregistro Orokor Sanitarioa informatikaren bitartez tratatzeko, eta orobat gainerako erregistro sanitarioak eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen defentsarako interes orokorreko datuak.

Bigarrena

IX. kapituluan ezarritakoaren ondorioetarako, aplikatzekoa izango da 1983ko ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretua, gerora Gobernuak hari egindako aldaketa edo egokitzapenekin.

Hirugarrena

Gobernuak, lege hau indarrean jarri ondorengo urtebetean, egokitu egingo ditu Kontsumo Institutu Nazionalaren antolamendu-egitura eta eskumenak, eta Estatuaren Administrazioan gai hauetan eskumena duten gainerako organoenak, lege honen edukiarekin bat etortzeko.

Laugarrena

Lege hau aplikatzeko behar den erregelamendua edo behar diren erregelamenduak onetsiko ditu Gobernuak, indarrean jarri eta urtebeteren epean.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Derogaturik geratzen dira lege honetan xedaturikoaren kontrako xedapen guztiak.

22/1994 LEGEA,
1994KO UZTAILAREN 6KOA,
PRODUKTU AKASTUNEK ERAGINDAKO
KALTEEN ERANTZUKIZUN
ZIBILARI BURUZKOA

LEY 22/1994, DE 6 DE JULIO,
DE RESPONSABILIDAD CIVIL
POR DAÑOS CAUSADOS
POR PRODUCTOS DEFECTUOSOS

**Ley 22/1994, de 6 de julio,
de responsabilidad civil por daños causados por productos defectuosos¹**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Esta Ley tiene por objeto la adaptación del Derecho español a la Directiva 85/374/CEE, de 25 de julio de 1985, sobre responsabilidad civil por los daños ocasionados por productos defectuosos. Fruto de un largo y complejo proceso de elaboración, la Directiva se propone conseguir un régimen jurídico sustancialmente homogéneo, dentro del ámbito comunitario, en una materia especialmente delicada, en razón de los intereses en conflicto.

Dado que ni el ámbito subjetivo de tutela ni el objetivo que contempla la Directiva coinciden con los de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, se ha optado por elaborar un proyecto de Ley especial.

Siguiendo la Directiva, la Ley establece un régimen de responsabilidad objetiva, aunque no absoluta, permitiendo al fabricante exonerarse de responsabilidad en los supuestos que se enumeran.

Como daños resarcibles se contemplan las lesiones personales y los daños materiales, con la franquicia en este último caso de 65.000 pesetas.

Los sujetos protegidos son, en general, los perjudicados por el producto defectuoso, con independencia de que tengan o no la condición de consumidores en sentido estricto.

La responsabilidad objetiva del fabricante dura diez años desde la puesta en circulación del producto defectuoso causante del daño. Se trata de un período de tiempo razonable si se tiene en cuenta el ámbito de aplicación objetivo del proyecto, que se circunscribe a los bienes muebles y al gas y a la electricidad.

Por último, la Ley hace uso de la posibilidad que ofrece la Directiva de limitar la responsabilidad global del fabricante por los daños personales causados por artículos idénticos con el mismo defecto.

¹ BOE, 7 de julio de 1994, número 161. Modificada por la Ley 14/2000, de 29 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social (BOE de 30 de diciembre de 2000, núm. 313).

22/1994 Legea, 1994ko uztailaren 6koa,
produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzkoa¹

ZIOEN AZALPENA

Lege honen xedea hau da: produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzko 1985ko uztailaren 25ko 85/374/EEE zuzentaraura egokitzea Espainiako zuzenbidea. Zuzentarau horrekin, lantze-prozesu luze eta konplexu bat buruturik, araubide juridiko funtsean homogeen bat ezarri nahi izan da, Europar Erkidegoaren eremurako, interes-gatazkak direla-eta bereziki delikatua den gai batean.

Ez zuzentarauak hartzen duen babes-eremu subjektiboa, ez objektiboa, ez datozenez bat 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legearenekin —kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra—, lege-proiektu berezi bat egitea erabaki da.

Zuzentarauari jarraituz, erantzukizun objektiboaren araubide bat ezartzen du legeak, nahiz ez absolutua, zerrendatzen diren kasu batzuetan erantzukizunez gabetzeko bide ematen baitzaio fabrikatzaileari.

Ordaingarri diren kaltetzat lesio pertsonalak eta kalte materialak hartzen dira, kalte materialek 65.000 pezetako frankizia dutela.

Babesturiko subjektuak, oro har, produktu akastunek kalteturikoak dira, zentzu hertsian kontsumitzaile izan edo ez.

Fabrikatzailearen erantzukizun objektiboak hamar urte irauten du, kaltea eragin duen produktu akastuna zirkulazioan jarri zenetik hasita. Arrazoizkoa da epea, kontuan harturik proiektuaren aplikazio-eremu objektiboa zein den: ondasun higigarriak, eta gasa eta elektrizitatea.

Legeak, azkenik, zuzentarauak eskaintzen duen aukera baliaturik, muga bat ezartzen dio akats bera duten gauza berdinek eragindako kalte pertsonalen kasuan fabrikatzaileak duen guztizko erantzukizunari.

¹ BOE, 1994ko uztailaren 17a, 161. zenbakia. Honako honek aldatua: 14/2000 Legea, abenduaren 29koa, neurri fiskal, administratibo eta gizarte-arloko buruzkoa (BOE, 2000ko abenduaren 30a, 313. zenbakia).

Artículo 1. Principio general

Los fabricantes y los importadores serán responsables, conforme a lo dispuesto en esta Ley, de los daños causados por los defectos de los productos que, respectivamente, fabriquen o importen.

Artículo 2. Concepto legal de producto

1. A los efectos de esta Ley, se entiende por producto todo bien mueble, aun cuando se encuentre unido o incorporado a otro bien mueble o inmueble.

2. También se considerarán productos el gas y la electricidad.

Artículo 3. Concepto legal de producto defectuoso

1. Se entenderá por producto defectuoso aquel que no ofrezca la seguridad que cabría legítimamente esperar, teniendo en cuenta todas las circunstancias y, especialmente, su presentación, el uso razonablemente previsible del mismo y el momento de su puesta en circulación.

2. En todo caso, un producto es defectuoso si no ofrece la seguridad normalmente ofrecida por los demás ejemplares de la misma serie.

3. Un producto no podrá ser considerado defectuoso por el solo hecho de que tal producto se ponga posteriormente en circulación de forma más perfeccionada.

Artículo 4. Concepto legal de fabricante e importador

1. A los efectos de esta Ley, se entiende por fabricante:

a) El de un producto terminado.

b) El de cualquier elemento integrado en un producto terminado.

c) El que produce una materia prima.

d) Cualquier persona que se presente al público como fabricante, poniendo su nombre, denominación social, su marca o cualquier otro signo o distintivo en el producto o en el envase, el envoltorio o cualquier otro elemento de protección o de presentación.

2. A los mismos efectos, se entiende por importador quien, en el ejercicio de su actividad empresarial, introduce un producto en la Unión Europea para su venta, arrendamiento, arrendamiento financiero o cualquier otra forma de distribución.

1. artikulua. Printzipio orokorra

Fabrikatzaileak eta inportatzaileak izango dira, hurrenez hurren, fabrikatzen edo inportatzen dituzten produktuen akatsek eragindako kalteen erantzule, lege honek ezarritakoaren arabera.

2. artikulua. Produktua: legezko kontzeptua

1. Lege honetan, zera hartzen da produktutzat: ondasun higigarri oro, nahiz beste ondasun higigarri edo higiezin bati elkaturik edo hartan integraturik egon.

2. Gasa eta elektrizitatea ere produktutzat joko dira.

3. artikulua. Produktu akastuna: legezko kontzeptua

1. Zera hartuko da produktu akastuntzat: legitimoki espero izatekoa den segurtasuna eskaintzen ez duena, kontuan izanik inguruabar guztiak eta, bereziki, aurkezpena, zentzuz aurreikus dakioken erabilera eta noiz jarri den zirkulazioan.

2. Edozein kasutan, akastuna da produktu bat baldin eta sail bereko gainerrako aleek eskuarki eskaintzen duten segurtasuna eskaintzen ez badu.

3. Produktu bat akastuntzat jotzeko, ez da nahikoa arrazoi izango gerora hobeturik jarri izana produktu hori bera zirkulazioan.

4. artikulua. Fabrikatzailea eta inportatzailea: legezko kontzeptuak

1. Lege honetan, fabrikatzailetzat hartzen da:

a) Produktu bukatuaren fabrikatzailea.

b) Produktu bukatu batean integraturiko edozein elementuren fabrikatzailea.

c) Lehengai bat ekoizten duena.

d) Jendaurrean fabrikatzaile gisa agertzen den edozein pertsona, bere ize-na, sozietate-izena, marka edo beste edozein zeinu edo bereizgarri jarririk produktuan edo produktuaren ontzikian, bilgarrian edo beste edozein babes- edo aurkezpen-elementutan.

2. Lege honetan, inportatzailetzat hartzen da enpresa-jardueran ari dela Europar Batasunean produktu bat sartzen duena, dela saltzeko, errentamendurako, errentamendu finantzariorako edo beste edozein banaketa modutarako.

3. Si el fabricante del producto no puede ser identificado, será considerado como fabricante quien hubiere suministrado o facilitado el producto, a menos que, dentro del plazo de tres meses, indique al dañado o perjudicado la identidad del fabricante o de quien le hubiera suministrado o facilitado a él dicho producto. La misma regla será de aplicación en el caso de un producto importado, si el producto no indica el nombre del importador, aun cuando se indique el nombre del fabricante.

Artículo 5. Prueba

El perjudicado que pretenda obtener la reparación de los daños causados tendrá que probar el defecto, el daño y la relación de causalidad entre ambos.

Artículo 6. Causas de exoneración de la responsabilidad

1. El fabricante o el importador no serán responsables si prueban:

a) Que no habían puesto en circulación el producto.

b) Que, dadas las circunstancias del caso, es posible presumir que el defecto no existía en el momento en que se puso en circulación el producto.

c) Que el producto no había sido fabricado para la venta o cualquier otra forma de distribución con finalidad económica, ni fabricado, importado, suministrado o distribuido en el marco de una actividad profesional o empresarial.

d) Que el defecto se debió a que el producto fue elaborado conforme a normas imperativas existentes.

e) Que el estado de los conocimientos científicos y técnicos existentes en el momento de la puesta en circulación no permitía apreciar la existencia del defecto.

2. El fabricante o el importador de una parte integrante de un producto terminado no serán responsables si prueban que el defecto es imputable a la concepción del producto al que ha sido incorporada o a las instrucciones dadas por el fabricante de ese producto.

3. En el caso de medicamentos, alimentos o productos alimentarios destinados al consumo humano, los sujetos responsables, de acuerdo con esta Ley, no podrán invocar la causa de exoneración de la letra e) del apartado 1 de este artículo.

3. Produktuaren fabrikatzailea identifikatzerik ez badago, produktua hornitu edo eskura jarri duena hartuko da fabrikatzailetzat, non eta kaltetunari edo galera izan duenari ez dion adierazten, hiru hilabeteko epean, nor den fabrikatzailea edo berari produktua hornitu edo eskura jarri diona. Erregela bera aplikatuko da produktua inportatua denean, produktuak inportatzailearen izenik ez badakar, nahiz eta fabrikatzailearena adierazi.

5. artikulua. Frogatzea

Kalteak konpontzea lortu nahi duen kaltetunak frogatu egin beharko ditu akatsa eta kaltea, eta bata bestearen ondorio dela.

6. artikulua. Erantzukizunez gabetzeko arrazoiak

1. Fabrikatzailea edo inportatzailea ez dira erantzule izango baldin eta frogatzen badute:

a) Zirkulazioan jarri gabea zutela produktua.

b) Uste izatekoa dela, kasuaren inguruabarrak ikusirik, zirkulazioan jarri zenean produktuak ez zuela akats hori.

c) Produktua ez zela saltzeko edo helburu ekonomikoz beste inola banatzeko fabrikatu, ez jarduera profesional batean edo enpresa-jarduera batean fabrikatu, inportatu, hornitu edo banatu.

d) Une hartan zeuden aginduzko arauen arabera egina izateagatik zuela akatsa produktuak.

e) Zirkulazioan jarri zen uneko ezagutza zientifiko eta teknikoekin ezin zela akatsa hauteman.

2. Produktu bukatu batean integraturiko parte baten fabrikatzailea eta inportatzailea ez dira erantzule izango baldin eta frogatzen badute hura txertatu den produktuaren kontzepzioari edo produktu horren fabrikatzaileak emandako instrukzioei gotz dakiekeela akatsa.

3. Gizakiaren kontsumorako botika, elikagai edo janari-produktuen kasuan, erantzuleek, lege honen arabera, ezin emango dute erantzukizunez gabetzeko arrazoitzat artikuluko honen 1. zenbakiko e) letrakoa.

Artículo 7. Responsabilidad solidaria

Las personas responsables del mismo daño por aplicación de la presente Ley lo serán solidariamente.

Artículo 8. Intervención de un tercero

La responsabilidad del fabricante o importador no se reducirá cuando el daño sea causado conjuntamente por un defecto del producto y por la intervención de un tercero. No obstante, el sujeto responsable de acuerdo con esta Ley que hubiera satisfecho la indemnización podrá reclamar al tercero la parte que corresponda a su intervención en la producción del daño.

Artículo 9. Culpa del perjudicado

La responsabilidad del fabricante o importador podrá reducirse o suprimirse en función de las circunstancias del caso, si el daño causado fuera debido conjuntamente a un defecto del producto y a culpa del perjudicado o de una persona de la que éste deba responder civilmente.

Artículo 10. Ámbito de protección

1. El régimen de responsabilidad civil previsto en esta Ley comprende los supuestos de muerte y las lesiones corporales, así como los daños causados en cosas distintas del propio producto defectuoso, siempre que la cosa dañada se halle objetivamente destinada al uso o consumo privados y en tal concepto haya sido utilizada principalmente por el perjudicado. En este último caso se deducirá una franquicia de 65.000 pesetas.

2. Los demás daños y perjuicios, incluidos los daños morales, podrán ser resarcidos conforme a la legislación civil general.

3. La presente Ley no será de aplicación para la reparación de los daños causados por accidentes nucleares, siempre que tales daños se encuentren cubiertos por convenios internacionales ratificados por los Estados miembros de la Unión Europea.

Artículo 11. Límite total de la responsabilidad

En el régimen de responsabilidad previsto en esta Ley, la responsabilidad civil global del fabricante o importador por muerte y lesiones personales causadas por productos idénticos que presenten el mismo defecto tendrá como límite la cuantía de 10.500.000.000 de pesetas.

7. artikulua. Erantzukizun solidarioa

Lege hau aplikaturik kalte beraren erantzule diren pertsonak erantzule solidario izango dira.

8. artikulua. Hirugarren baten esku-hartzea

Fabrikatzailearen edo inportatzailearen erantzukizuna ez da gutxiagotuko produktuaren akats batek eta hirugarren baten esku-hartzeak batera sortu dutenean kaltea. Hala ere, lege honen arabera erantzule izan eta kalte-ordaina eman duen subjektuak aukera izango du hirugarrenari erreklamatzeko haren esku-hartzeak kaltearen sorreran izandako parteari dagokiona.

9. artikulua. Kaltedunaren errua

Fabrikatzailearen edo inportatzailearen erantzukizuna gutxiagotu edo kendu ahal izango da, kasuaren inguruabarren arabera, batera eragin badute kaltea produktuaren akatsak eta kaltedunaren erruak, edo kaltedunak beraren erantzukizun zibila duen beste pertsona batenak.

10. artikulua. Babes-eremua

1. Lege honetan aurreikusitako erantzukizun zibilaren araubideak heriotzaka- kasuak eta gorputzeko lesioak hartzen ditu, eta orobat produktu akastunaz besteko gauzei egindako kalteak, betiere berez erabilera edo kontsumo pribaturakoa bada gauza akastuna, eta nagusiki hala erabili badu kaltedunak. Azken kasu horretan, 65.000 pezetako frankizia kenduko da.

2. Gainerako kalte-galerak, kalte moralak barne, legeria zibil orokorraren arabera konpondu ahal izango dira.

3. Lege hau ez da aplikatuko istripu nuklearrek eragindako kalteak konpontzeko, baldin eta Europar Batasuneko estatu kideek berretsiriko nazioarteko hitzarmenen bidez estalirik badaude kalteok.

11. artikulua. Guztizko erantzukizunaren muga

Lege honetan aurreikusitako erantzukizun-araubidean, 10.500.000.000 pezetan ezartzen zaio muga akats bera duten produktu berdinek eragindako heriotza eta lesio pertsonalengatik fabrikatzaileak edo inportatzaileak duen guztizko erantzukizun zibilari.

Artículo 12. Prescripción de la acción

1. La acción de reparación de los daños y perjuicios previstos en esta Ley prescribirá a los tres años, a contar desde la fecha en que el perjudicado sufrió el perjuicio, ya sea por defecto del producto o por el daño que dicho defecto le ocasionó, siempre que se conozca al responsable de dicho perjuicio. La acción del que hubiese satisfecho la indemnización contra todos los demás responsables del daño prescribirá al año, a contar desde el día del pago de la indemnización.

2. La interrupción de la prescripción se rige por lo establecido en el Código Civil.

Artículo 13. Extinción de la responsabilidad

Los derechos reconocidos al perjudicado en esta Ley se extinguirán transcurridos diez años, a contar desde la fecha en que se hubiera puesto en circulación el producto concreto causante del daño, a menos que, durante ese período, se hubiese iniciado la correspondiente reclamación judicial.

Artículo 14. Ineficacia de las cláusulas de exoneración o limitación de la responsabilidad

Son ineficaces frente al perjudicado las cláusulas de exoneración o de limitación de la responsabilidad civil prevista en esta Ley.

Artículo 15. Responsabilidad civil contractual o extracontractual

Las acciones reconocidas en esta Ley no afectan a otros derechos que el perjudicado pueda tener como consecuencia de la responsabilidad contractual o extracontractual del fabricante, importador o de cualquier otra persona.

DISPOSICION ADICIONAL

Única. Responsabilidad del suministrador

El suministrador del producto defectuoso responderá, como si fuera el fabricante o el importador, cuando haya suministrado el producto a sabiendas de la existencia del defecto. En este caso, el suministrador podrá ejercitar la acción de repetición contra el fabricante o importador.

12. artikulua. Akzioaren preskripzioa

1. Lege honetan aurreikusitako kalte-galerak konpontzeko akzioak hiru urteren buruan preskribatuko du, produktuaren akatsagatik edo akats horrek eragindako kalteagatik kaltetunak galera izan zuen egunetik kontatzen hasita, betiere galeraren erantzulea zein den jakinez gero. Kalte-ordaina eman duenak kaltearen erantzule diren gainerako guztien kontra baliaturiko akzioak urtebetere buruan preskribatuko du, kaltea ordaindu den egunetik kontatzen hasita.

2. Preskripzioa eteteari dagokionez, Kode Zibilean ezarritakoak aginduko du.

13. artikulua. Erantzukizuna azkentzea

Lege honetan kaltetunari aitortzen zaizkion eskubideak hamar urteren buruan azkenduko dira, kaltea eragin duen produktu konkretua zirkulazioan jarri den egunetik kontatzen hasita, ez bada, aldi horretan, dagokion erreklamazio judiziala hasi.

14. artikulua. Erantzukizunez gabetzeko edo erantzukizuna mugatzeko klausulen efekturik eza

Kaltetunarekiko efekturik gabeak dira lege honetan aurreikusitako erantzukizun zibilaz gabetzeko edo hura mugatzeko klausulak.

15. artikulua. Kontratuzko nahiz kontratuz kanpoko erantzukizun zibila

Lege honetan aitorturiko akzioek ez diete eragiten kaltetunak fabrikatzailearen, inportatzailearen edo beste edonoren kontratuzko nahiz kontratuz kanpoko erantzukizunaren ondorioz izan ditzakeen beste eskubide batzuei.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Hornitzailearen erantzukizuna

Produktu akastunaren hornitzailea erantzule izango da, haren fabrikatzailea edo inportatzailea balitz bezala, produktua akatsa zuela jakinik hornitu duen kasuan. Kasu horretan, berreskatze-akzioa baliatu ahal izango du hornitzaileak fabrikatzailearen edo inportatzailearen aurka.

DISPOSICION TRANSITORIA

Única. Productos en circulación

La presente Ley no será de aplicación a la responsabilidad civil derivada de los daños causados por productos puestos en circulación antes de su entrada en vigor. Esta se regirá por las disposiciones vigentes en dicho momento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Inaplicación de determinados preceptos

Los Artículos 25 a 28 de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, no serán de aplicación a la responsabilidad civil por daños causados por productos defectuosos incluidos en el Artículo 2 de la presente Ley.

Segunda. Nueva redacción del Artículo 30 de la Ley 26/1984, de 19 de julio

El Artículo 30 de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, queda redactado como sigue:

«El Gobierno, previa audiencia de los interesados y de las Asociaciones de Consumidores y Usuarios, podrá establecer un sistema de seguro obligatorio de responsabilidad civil derivada de los daños causados por productos o servicios defectuosos y un fondo de garantía que cubra, total o parcialmente, los daños consistentes en muerte, intoxicación y lesiones personales».

Tercera. Modificación de cuantías

Se faculta al Gobierno para modificar las cuantías establecidas en la presente Ley, conforme a las revisiones periódicas que se formulen por el Consejo de la Unión Europea, en los términos establecidos en la normativa comunitaria.

Cuarta. Entrada en vigor.

Esta Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Zirkulazioan dauden produktuak

Lege hau ez zaio aplikatuko berau indarrean sartu aurretik zirkulazioan jarritako produktuek eragindako kalteetatik eratorritako erantzukizun zibilari. Une hartan indarrean zeuden xedapenek aginduko dute erantzukizun horren gainean.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Agindu batzuk ez aplikatzea

Lege honen 2. artikuluan sartzten diren produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari ez zaizkio aplikatuko 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legearen —kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra— 25.etik 28.era bitarteko artikulua.

Bigarrena. 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legearen 30. artikulua berridaztea

Honela geratzen da idatzirik 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legearen —kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra— 30. artikulua:

«Gobernuak, aurrez entzuera emanik interesatuei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei, nahitaezko aseguru-sistema bat ezarri ahal izango du produktu edo zerbitzu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilerako, eta berme-funts bat, heriotza, intoxikazio eta lesio pertsonal diren kalteak gutzitz edo partez estaltzeko».

Hirugarrena. Zenbatekoak aldatzea

Gobernuari ahalmena ematen zaio lege honetan ezarritako zenbatekoak aldatzeko, Europar Erkidegoko arautegiak ezarritakoari jarraituz Europar Batasuneko Kontseiluak egiten dituen aldizkako berrikuspenen arabera.

Laugarrena. Indarrean sartztea.

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean lege hau.

7/1998 LEGEA,
1998KO APIRILAREN 13KOA,
KONTRATUETAKO BALDINTZA
OROKORREI BURUZKOA

LEY 7/1998, DE 13 ABRIL,
DE CONDICIONES
GENERALES DE LA CONTRATACIÓN

**Ley 7/1998, de 13 abril,
de condiciones generales de la contratación¹**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Preámbulo

La presente Ley tiene por objeto la transposición de la Directiva 93/13/CEE, del Consejo, de 5 de abril de 1993, sobre cláusulas abusivas en los contratos celebrados con consumidores, así como la regulación de las condiciones generales de la contratación, y se dicta en virtud de los títulos competenciales que la Constitución Española atribuye en exclusiva al Estado en el artículo 149.1.6.^a y 8.^a, por afectar a la legislación mercantil y civil.

Se ha optado por llevar a cabo la incorporación de la Directiva citada mediante una Ley de Condiciones Generales de la Contratación, que al mismo tiempo, a través de su disposición adicional primera, modifique el marco jurídico preexistente de protección al consumidor, constituido por la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios.

La protección de la igualdad de los contratantes es presupuesto necesario de la justicia de los contenidos contractuales y constituye uno de los imperativos de la política jurídica en el ámbito de la actividad económica. Por ello la Ley pretende proteger los legítimos intereses de los consumidores y usuarios, pero también de cualquiera que contrate con una persona que utilice condiciones generales en su actividad contractual.

Se pretende así distinguir lo que son cláusulas abusivas de lo que son condiciones generales de la contratación.

Una cláusula es condición general cuando está predispuesta e incorporada a una pluralidad de contratos exclusivamente por una de las partes, y no tiene por qué ser abusiva. Cláusula abusiva es la que en contra de las exigencias de la buena fe causa en detrimento del consumidor un desequilibrio importante e injustificado de las obligaciones contractuales y puede tener o no el carácter de

¹ BOE, de 14 de abril de 1998, núm. 89. Modificada por la Ley 44/2006, de 29 de diciembre, de mejora de la protección de consumidores y usuarios (BOE, de 30 de diciembre de 2006, núm. 312).

7/1998 Legea, 1998ko apirilaren 13koa, kontratuetao baldintza orokorre buruzkoa¹

ZIOEN AZALPENA

Atariko

Lege honen helburua hau da: batetik, transposizioz jasotzea Europar Erki-degoaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13 EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, kontsumitzaileekin egindako kontratuetao abusuzko klausulei buruzkoa; bestetik, kontratuetao baldintza orokorrak arautzea. Lege hau emateko eskumena Espainiako Konstituziotik dator, 149.1 artikuluaen 6. eta 8. puntuetan Estatuaren eskumen eskusibo izendatzen baititu hark merkataritza-legeriari eta legeria zibilari dagozkionak.

Europar Erkidegoaren zuzentaraua Kontratuetao Baldintza Orokorraren Lege baten bitartez jasotzea erabaki da, eta aldi berean, legearen lehen xedapen gehigarriaren bitartez, aldatu egin da aurrez kontsumitzailea babesteko zegoen esparru juridikoa, hau da, 26/1984 Legea, 1984ko uztailaren 19koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra.

Kontratugileen berdintasuna babestea behar-beharrezko eskakizuna da kontratuen edukiak bidezko izango badira, eta ekonomia-jardueraren arloko politika juridikoaren beharkizunetariko bat ere bada. Horregatik, lege honen xedea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes legitimoak babestea ez ezik, kontratuetao baldintza orokorrak erabiltzen dituen norbaitekin kontratueta egi-ten duen edonoren interes legitimoak babestea da.

Berezi egin nahi da, hala, zer diren abusuzko klausulak eta zer kontratuetao baldintza orokorrak.

Klausula bat baldintza orokorra da alderdi batek prestatua eta kontratu berdín askotan ezarria bada, eta ez du zertan abusuzkoa izanik. Klausula bat abusuzkoa da kontratuzko obligazioetan desoreka handia eta justifikaziorik gabea sortzen badu, kontsumitzailearen kaltetan, fede onak eskatzen duenaren kontra; klausula hori baldintza orokor izan daiteke edo ez, orobat gerta

¹ BOE, 1988ko apirilaren 14a, 89. zenbakia. Honako honek aldatua: 44/2006 Legea, 2006ko abenduaren 29koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa hobetzeari buruzkoa (BOE, 2006ko abenduaren 30a, 312. zenbakia).

condición general, ya que también puede darse en contratos particulares cuando no existe negociación individual de sus cláusulas, esto es, en contratos de adhesión particulares.

Las condiciones generales de la contratación se pueden dar tanto en las relaciones de profesionales entre sí como de éstos con los consumidores. En uno y otro caso, se exige que las condiciones generales formen parte del contrato, sean conocidas o —en ciertos casos de contratación no escrita— exista posibilidad real de ser conocidas, y que se redacten de forma transparente, con claridad, concreción y sencillez. Pero, además, se exige, cuando se contrata con un consumidor, que no sean abusivas.

El concepto de cláusula contractual abusiva tiene así su ámbito propio en la relación con los consumidores. Y puede darse tanto en condiciones generales como en cláusulas predisuestas para un contrato particular al que el consumidor se limita a adherirse. Es decir, siempre que no ha existido negociación individual.

Esto no quiere decir que en las condiciones generales entre profesionales no pueda existir abuso de una posición dominante. Pero tal concepto se sujetará a las normas generales de nulidad contractual. Es decir, nada impide que también judicialmente pueda declararse la nulidad de una condición general que sea abusiva cuando sea contraria a la buena fe y cause un desequilibrio importante entre los derechos y obligaciones de las partes, incluso aunque se trate de contratos entre profesionales o empresarios. Pero habrá de tener en cuenta en cada caso las características específicas de la contratación entre empresas.

En este sentido, sólo cuando exista un consumidor frente a un profesional es cuando operan plenamente la lista de cláusulas contractuales abusivas recogidas en la Ley, en concreto en la disposición adicional primera de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, que ahora se introduce. De conformidad con la Directiva transpuesta, el consumidor protegido será no sólo el destinatario final de los bienes y servicios objeto del contrato, sino cualquier persona que actúe con un propósito ajeno a su actividad profesional.

En el artículo 10 bis y en la disposición adicional primera de la misma Ley, que lo desarrolla, se han recogido las cláusulas declaradas nulas por la Directiva y además las que con arreglo a nuestro Derecho se han considerado claramente abusivas.

Con ello se ejercita la facultad del Estado obligado a transponer la Directiva comunitaria de poder incrementar el nivel de protección más allá de las obligaciones mínimas que aquélla impone.

baitaiteke klausulak banan-banan negoziatu ez diren kontratu partikular batekoa izatea, hau da, atxikitze-kontratu partikular batekoa.

Kontratu-baldintza orokorrak berdin ager daitezke profesionalen arteko harremanetan zein profesionalen eta kontsumitzaileen arteko harremanetan. Kasu batean nahiz bestean, beharrezko da baldintza orokorrak kontratuaren parte izatea, ezagunak izatea edo —idatzi gabeko kontratuen kasu batzuetan— ezagutzeko benetako aukera izatea, eta modu gardenean idatzirik egotea, garbi, zehatz eta erraz. Baina, gainera, beharrezko da, kontratua kontsumitzaile batekin egiten denean, baldintza orokor horiek abusuzkoak ez izatea.

Abusuzko kontratu-klausularen kontzeptua, beraz, kontsumitzaileekiko harremanen eremuko da. Eta gerta daiteke, bai klausula orokorretan, bai kontratu partikular baterako ezarritako klausuletan, kontsumitzailea kontratu horri atxiki besterik egiten ez zaionean. Hau da, banan-banako negoziaziorik izan ez den guztietan.

Horrek ez du esan nahi profesionalen arteko baldintza orokorretan ezin gerta daitekeenik nagusitasunezko egoera batez abusatzea. Kontzeptu hori, ordea, kontratu-deuseztasunaren arau orokorretan sartuko da. Hau da, ezerk ez du eragozten abusuzkoa den baldintza orokor bat judizialki deusez deklaratzeko, fede onaren kontrakoa den eta alderdien eskubide eta obligazioen artean desoreka handia sortzen duen kasuan, are profesional edo enpresariaren arteko kontratuetan. Baina kontuan izan beharko dira, kasu bakoitzean, enpresen arteko kontratuen berriazko ezaugarriak.

Hala, kontsumitzaileak aurrean duena profesional bat denean bakarrik da aplikatzekoa lege honetan aurreikusiriko abusuzko klausulen zerrenda; zehazki, 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Legean —kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako orokorra— lege honen bitartez gehitzen den lehenbiziko xedapen gehigarriak dakarrena. Transposizioz jasotako zuzentarauaren arabera, babesten den kontsumitzailea ez da bakarrik kontratuaren gai diren ondasun eta zerbitzuen azken xedeko dena, baizik eta bere jarduera profesionalaz kanpoko asmo batekin diharduen edonor.

Lege beraren 10 bis artikuluan eta artikulua hori garatzen duen lehenbiziko xedapen gehigarrian jasota daude zuzentarauak deusez deklaraturiko klausulak, eta, haiez gainera, gure zuzenbidearen arabera nabarmen abusuzkotzat jo direnak.

Hori egitean, Europar Erkidegoko zuzentaraua transposizioz jasotzera beharturiko estatuaren ahalmen bat baliatzen da: babesa areagotzea, zuzentarauak ezartzen dituen gutxieneko betebeharretatik harago ere.

La Ley se estructura en siete capítulos, tres disposiciones adicionales, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y tres disposiciones finales.

I

El Capítulo I relativo a «Disposiciones generales», recoge el concepto de condición general de la contratación basado en la predisposición e incorporación unilateral de las mismas al contrato. En su formulación se han tenido en cuenta orientaciones jurisprudenciales anteriores, las aportaciones doctrinales sobre la materia y los criterios utilizados por el Derecho comparado.

Se regula también su ámbito de aplicación tanto desde un punto de vista territorial como objetivo, siguiendo en lo primero el criterio de inclusión no sólo de los contratos sometidos a la legislación española sino también de aquellos contratos en los que, aun sometidos a la legislación extranjera, la adhesión se ha realizado en España por quien tiene en su territorio la residencia o domicilio. En definitiva, cuando la declaración negocial se haya producido en territorio español regirá (en cuanto a las condiciones generales) la ley española, conforme al Convenio sobre la Ley aplicable a las Obligaciones Contractuales, abierto a la firma en Roma el 19 de junio de 1980, ratificado por Instrumento de 7 de mayo de 1993 («Boletín Oficial del Estado» de 19 de julio), al atribuirle el carácter de disposición imperativa (artículos 3 y 5.2 de dicho Convenio).

Desde el punto de vista objetivo se excluyen ciertos contratos que por sus características específicas, por la materia que tratan y por la alienidad de la idea de predisposición contractual, no deben estar comprendidos en la Ley, como son los administrativos, los de trabajo, los de constitución de sociedades, los que regulen relaciones familiares y los sucesorios. Tampoco se extiende la Ley —siguiendo el criterio de la Directiva— a aquellos contratos en los que las condiciones generales ya vengán determinadas por un Convenio internacional en que España sea parte o por una disposición legal o administrativa de carácter general y de aplicación obligatoria para los contratantes. Conforme al criterio del considerando décimo de la Directiva, todos estos supuestos de exclusión deben entenderse referidos no sólo al ámbito de las condiciones generales, sino también al de cláusulas abusivas regulados en la Ley 26/1984, que ahora se modifica.

La Ley regula además en este capítulo los requisitos para que la incorporación de una cláusula general se considere ajustada a Derecho y opta por la interpretación de las cláusulas oscuras en la forma más ventajosa para el adherente.

Lege honek zapi kapitulu ditu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen derogatzaile bat eta amaierako hiru xedapen.

I

I. kapituluak «Xedapen orokorrak» biltzen ditu, eta kontratu-baldintza orokorraren kontzeptua jasotzen du, alderdi bakar batek aurrez prestatu eta kontratuan txertatua izatean oinarritua. Kontzeptu hori formulatzean, kontuan hartu dira aurreko jurisprudentzia-joerak, gai horri buruz doktrinak egindako ekarpenak eta zuzenbide konparatuak erabiltzen dituen irizpideak.

Orobat arautzen da legearen aplikazio-eremua, bai lurraldearen eta bai objektuaren aldetik; lurraldeari dagokionez, Espainiako legeriaren mendeko kontratuak ez ezik, atzerriko legeriaren mendekoak ere hartzen ditu legeak, Espainian bizitokia edo egoitza duen norbaitek kontratu-atxikitzea bertan egin duen kasuan. Alegia, kontratatzeko borondatearen adierazpena Espainiako lurraldean egin denean, Espainiako legeak aginduko du (baldintza orokorreari dagokionez), hala xedatzen baitu Kontratzuko Obligazioei Aplikatzeko Legeari Buruzko Hitzarmenak —Erroman sinatzeko irekia, 1980ko ekainaren 19an, eta 1993ko maiatzaren 7ko agiriak berretsia (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1993ko uztailaren 19a)—, aginduzko xedapenaren izaera ematen baitio hitzarmenaren 3. eta 5.2 artikuluetan.

Objektuaren aldetik, kanpo uzten dira kontratu batzuk, beren ezaugarrien-gatik, tratatzen duten gaiagatik eta kontratuan aurre-ezarpenik ez izateagatik legean sarturik egon behar ez dutenak: administrazio-kontratuak, lan-kontratuak, sozietateak eratzekoak, familia-harremanak arautzen dituztenak eta oinordetza-kontratuak. Zuzentarauaren irizpideari jarraituz, lege honen eremutik kanpo gelditzen dira, orobat, baldintza orokorrak lehendik zehaztuak dituzten honelako kontratuak: Espainia parte den nazioarteko hitzarmenen batean zehaztuak dituztenak, edo izaera orokorreko eta kontratugileek nahitaez bete beharreko lege-xedapen edo administrazio-xedapenen batean zehaztuak dituztenak. Zuzentarauaren hamargarren kontuan-hartuzkoan jasotako irizpidearen arabera, ulertu behar da salbuespen-kasu horiek guztiak ez dagozkiela baldintza orokorreari bakarrik, baizik eta orain aldatzen den 26/1984 Legean arauturiko abuzuzko klausulei ere bai.

Kapitulu berean, baldintza orokor bat zuzenbidearen arabera txertatua izateko betekizunak arautzen ditu legeak, eta klausula ilunak atxikimendu-emaileri mesedegarrien zaion moduan interpretatzearen alde egiten du.

II

El Capítulo II sanciona con nulidad las cláusulas generales no ajustadas a la Ley, determina la ineficacia por no incorporación de las cláusulas que no reúnan los requisitos exigidos en el capítulo anterior para que puedan entenderse incorporadas al contrato. Esta nulidad, al igual que la contravención de cualquier otra norma imperativa o prohibitiva, podrá ser invocada, en su caso, por los contratantes conforme a las reglas generales de la nulidad contractual, sin que puedan confundirse tales acciones individuales con las acciones colectivas de cesación o retractación reconocidas con carácter general a las entidades o corporaciones legitimadas para ello en el capítulo IV y que tienen un breve plazo de prescripción.

III

En el Capítulo III la Ley crea un Registro de Condiciones Generales de la Contratación, de acuerdo con lo previsto en el artículo 7 de la Directiva y conforme a los preceptos legales de otros Estados miembros de la Unión Europea. Registro que se estima sumamente conveniente como medio para hacer efectivo el ejercicio de acciones contra las condiciones generales no ajustadas a la Ley. Se trata de un Registro jurídico, regulado por el Ministerio de Justicia, que aprovechará la estructura dispensada por los Registradores de la Propiedad y Mercantiles. Ello no obstante, las funciones calificadoras nunca se extenderán a lo que es competencia judicial, como es la apreciación de la nulidad de las cláusulas, sin perjuicio de las funciones estrictamente jurídicas encaminadas a la práctica de las anotaciones preventivas reguladas en la Ley, a la inscripción de las resoluciones judiciales y a la publicidad de las cláusulas en los términos en que resulten de los correspondientes asientos. La inscripción en este Registro, para buscar un equilibrio entre seguridad jurídica y agilidad en la contratación, se configura como voluntaria, si bien legitimando ampliamente para solicitar su inscripción a cualquier persona o entidad interesada, como fórmula para permitir la posibilidad efectiva de un conocimiento de las condiciones generales. Ello no obstante, se admite que en sectores específicos el Ministerio de Justicia, a instancia de parte interesada o de oficio, y en propuesta conjunta con otros departamentos ministeriales, pueda configurar la inscripción como obligatoria.

El carácter eminentemente jurídico de este Registro deriva de los efectos «erga omnes» que la inscripción va a atribuir a la declaración judicial de nulidad, los efectos prejudiciales que van a producir los asientos relativos a sentencias firmes en otros procedimientos referentes a cláusulas idénticas, así como del cómputo del plazo de prescripción de las acciones colectivas, además del

II

II. kapituluak deusez jotzen ditu legearen arabera ez diren klausula orokorrak; eraginkortasunik gabekotzat jotzen ditu, txertaezintasunagatik, kontratuan txertatuztat hartzeko aurreko kapituluan eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten klausulak. Deusez izate hori, eta orobat beste edozein arau aginduzko edo debekuzko urratu izatea, alegatu ahal izango dute kontratugileek, hala bada-gokio, kontratu-deuseztasunaren arau orokorren arabera. Ez dira nahasi behar norbanakoen akzio horiek eta IV. kapituluan entitate edo korporazio legitimatuei orokorrean aitortzen zaizkien bukarazte- eta erretraktatze-akzio kolektiboak, preskripzio-epe laburrekoak haiek.

III

III. kapituluan, Kontratueta Baldintza Orokorren Erregistro bat sortzen du legeak, zuzentarauaren 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Euro-par Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako legezko manuekin bat etorritz. Oso komenigarritzat jotzen da erregistro hori, legearekin (lege honekin) bat ez datozen baldintza orokorren kontrako akzioak egiazki baliatzeko bitarteko gisa. Erregistro juridikoa da, Justizia Ministerioak arautua, eta jabetza-eta merkataritza-erregistratzaileek eskainitako egitura baliatuko du. Hala eta guztiz ere, erregistroaren kalifikazio-zereginak ez dira inoiz hedatuko epaileen eskumen den eremura, hala nola klausulak deusez diren edo ez balioestera, baina horrek ez ditu eragozten, haatik, guztiz juridikoak diren beste eginkizun batzuk: legean araturiko prebentziozko idatz-oharrak egitea, ebazpen judizialen inskripzioa egitea eta dagozkien idazpenetan datozen bezala klausulak publikizatzea. Baldintzak erregistro horretan inskribatzea borondatezkoa da, segurtasun juridikoaren eta kontratazio-arintasunaren arteko oreka erdieste aldera, baina inskripzioa eskatzeko legitimazio zabala ematen zaio edozein pertsona edo entitate interesduni, baldintza orokorrak ezagutzeko egiazko aukera emateko formula gisa. Hala eta guztiz ere, onartzen da inskripzioa nahitaezkozat ezartzea Justizia Ministerioak sektore jakin batzuetarako, alderdi interesdunen eskariz edo ofizioz, eta beste ministerio-departamentu batzuekin batera proposaturik.

